

URRUTIKO AZTERKETAK

Baldintzak

Fakultatean falta zaien irakasgaien azterketak egitea atzerrian onartzen da. Horrela, azterketak edo klaseak galtzea saihesten dira eta titulazioa bukatzea errazten da. Baina, badaude baldintza batzuk:

- a) Kurtsoko bi azterketa gehienez.
- b) Irakasgaiaren koordinatzailearen, jatorrizko eta helburuko unibertsitateko Nazioarteko harremanen onespena behar da.
- c) Jatorriko unibertsitateko egun eta ordu berean egin behar da azterketa.
- d) Eskaera-epea abenduaren 1ean bukatuko da lehen lauhilerako eta maiatzaren 1ean bigarren lauhilerako. Azterketa partzialetarako eskaera-epea 15 egun aurretikoa izango da. Beranduago iristen den edozein eskaera ez da ontzat hartuko.

Prozedura

Urrutian egiteko azterketa ikasleak pauso hauek egin behar ditu:

- Email bat bidali irakasgaiaren irakasleri esaten kanpoan egingo duzula azterketa.
- Norakoko zentruko koordinatzailearekin kontaktuan jarri eta galdetu ea azterketa zaintzeko prest dagoen.
- Bidali farmacia.internacional@ehu.eus helbide elektronikora eskaera orria behar den moduan beteta.

Eskaera-epea abenduaren 1ean bukatuko da lehen lauhilerako eta maiatzaren 1ean bigarren lauhilerako. Azterketa partzialetarako eskaera-epea 15 egun aurretikoa izango da. Beranduago iristen den edozein eskaera ez da ontzat hartuko. **Ez da onartuko hiru pauso hauek bete ez dituen urrutiko azterketarik data horretarako.**

Azterketa emailaz bidaliko da norakoko unibertsitateko irakasle arduradunari. Irakasgaiaren koordinatzaileak bidali diezaioke edo Farmazia Fakultateko Mugikortasunaren eta Nazioarteko Programen Dekanordetzaren bitartez. Azken kasu honetan, dekanordeak azterketa eta instrukzioak izan behar ditu azterketa egiteko:

- 24 orduko aurrerapenarekin, azterketak asteartetik larunbatera egiten badira.
- Ostiraleko 12:00 ak baino arinago, azterketak astelehenean badira.

Azterketa bukatu ondoren, norakoko unibertsitateko Nazioarteko Harremanak azterketa kopia bidaliko du eskaneatuta dekanordeari edota irakasgaiaren koordinatzaileari. Originala, korreo postalez bidaliko da horri honetan agertzen den helbidera.